



Larritasun ekonomikoa duten eta gizarteratzeko beharra duten pertsona eta familiei sostengua emateko ordenantza onartu du plenoak

Aurreko osteguneko udalbatzarrean erabaki garrantzitsuak hartu ziren, horien artean, Diru-sarrerak bermatzeko eta Gizarte Inklusiorako laguntzak emateko Udal ordenantza.

Udal gobernua konprometituta dago beharra duten pertsonen laguntzeko premiarekin, eta horregatik, Gizarte Zerbitzuen sailak, egoera honetan aurki daitezkeen pertsonen esku bat botatzeko ordenantza mamitu du azken hilabeteetan. Ordenantza proposamen hau ekainean ospatu zen Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informataizalean aurkeztu zen gainerako alderdiei, eta esan bezala, uztailaren 19ko ohiko udalbatzarrean onartu zen.

Laguntza hauen helburua da larritasun ekonomikoa duten eta gizarteratzeko beharra duten pertsona eta familiei sostengua ematea. Guztira sei kontzeptu ezberdinetan banatu dira diru-laguntza hauek:

1. Oinarrizko beharrak asetzeko gastuak

Hemen sartzen dira gizarte bazterketa larrian aurkitzen diren pertsonak, esaterako, ohiko etxebizitza eskuratzeko arazoak dituztenak edota etxebizitza izanik ere, janaria arropa, edo norbere higienarako produktuak bezalako oinarrizko beharrak asetzeko zailtasunak dituztenak.

2. Etxebizitza erabiltzeari lotutako gastuak

Hemen sartzen dira, besteen artean, etxebizitza errentan hartzea edota alokairuaren hasierako sarrera, energia eta mantentzea, etxebizitza egokitzeko edota konpontzeko gastuak, edota etxebizitzaren oinarrizko etxetresna edo altzariak erosteko gastuak.

3. Osasun arloko beharrak asetzeko gastuak

Hemen aurkituko ditugu aho-hortzetako, odontologia edota oftalmologiarekin zerikusia daukaten oinarrizko gastuak, desgaitasuna duten edota adin txikikoei zuzenduriko tratamendu terapeutikoak, osakidetzaren preskripzio medikua duten botiken gastua...

4. Garraio beharrak asetzeko diru-laguntzak

5. Adingabeentzako zerbitzuak kontratatzeako gastuak

Eskolaratze gastuak, eskolaz kanpoko jarduerak...

6. Helduak gizarteratzea edota lan munduan sartzea bultzatzeko gastuak

Helduen Formakuntza planetarako matrikula edota hileroko kuotaren gastuak, dokumentazioa kudeatzeko gastuak...

Diru-laguntza hauetako bakoitzak xehetasun ezberdinak dituenez, baldintzak ere ezberdinak dira kasu bakoitzean. Nolanahi ere, kasu bakoitzak Arreta Plangintza Pertsonalizatua izango du.

Plenoan aho batez onartu ondoren, esposizio publikoan aurkitzen da momentu honetan. Alegaziorik egongo ez balitz, 30 eguneko epean indarrean sartuko litzateke.